



Usurbilgo Udala

2024/10/10

2024KO URRIAREN 10EAN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Oskar Santamaria Picabea
Maialen Iñarra Arregi
Xabier Otxoa Muñoz
Josune Urkola Larrarte
Ivan Iriondo Axpe
Petra Romero Pozo

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro.

Ez da bertaratu: Jose Maria Lizaso Azconobieta.

Usurbilen, 2024ko urriaren 10ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

1.- 2025EKO ORDENANTZA FISKALAK HASIERAZ ONARTZEA (2024EKOF0003).

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearne irizpena azertu dute eta gehiengoz onartu dute, honakoa:

“Gobernu taldearen ordezkari gisa, Agurtzane Solaberrieta alkateak 2025 urterako prestatu duten Ordenantza Fiskalen proposamena azaldu du urriaren 2ean egindako ez-ohiko



Usurbilgo Udala

2024/10/10

Antolaketa batzordean. Aurreko batzordean azaldu zituen, 2025erako urterako proposatzen dituzten zerga, tasa eta prezio publikoen aldaketa nagusiak honakoak dira:

- Batetik, irizpide orokor gisa proposatzen du zerga, tasa eta prezio publikoak KPlaren arabera igotzea, hau da %2,6 igotzea.
- Irizpide orokorra aurrekoa izan arren, zenbait salbuespen egingo dira:
 - Kirol zerbitzuetan, Buruntzaldeko udalen artean hala adostu zelako, kirol zerbitzuetako prezioak eta abonua %4,5 igoko dira.
 - Uraren arazketa kontzeptu berri bat sartu da, Añarberen aldetik azken urteetan egindako inbertsioak direla eta, kontzeptu honekiko gastuak handitu baitira eta orain arte Udalak ez ditu kobratu. Ondorioz, ur-kontsumoaren araberrako %40ko arazketa zerbitzu kontzeptu berria sartu da. Urtero igotzeko asmoa dago estolderiaren mailara(ur-kontsumoaren %75) iritsi arte datozen urteetan.
 - Hondakinen kasuan %15eko igoera emango da, 7/2022 Hondakinen legearen baitan jasotako zerbitzuaren defizit zero printzipioaren bidean.
 - Udajolaseko tasari dagokionez kosteak asko igo dira, eta proposamena da orain arte bezala zerbitzuaren estaldura maila %50eko izatea. Alabaina, hori horrela izatera iristeko igoera progresiboa egitea aurreikusten da datozen urteetan eta, honela, 2025rako prezioa 120 euroan gelditzea.
 - Haurreskolari dagokionez ez da igoerarik emango.
 - Ondasun Higiezinaren Zergari dagokionez etxe hutsen errekarua %150era igoko da.

2025erako proposatzen diren ordenantza fiskalen xehetasunak emanik, emendakinak bozkatuta eta batzordekideen artean aztertu ondoren, Udal Batza Osoari proposatu zaio 2025ko Ordenantza fiskalak hasieraz onartzea eta 30 egunez jendaurrean jartzea. Aldeko 4 bozka (EH Bildu eta EAJ) eta abstentzio bat (PSE) eman dira. Ez da aurkako bozkarik izan.

2024ko urriaren 2ko Antolaketa batzordearen irizpena kontuan hartuta Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

Lehena: 2025eko Ordenantza Fiskalak hasieraz onartzea.

Bigarrena: Hasieraz onartutako ordenantza fiskalak 30 egunez jendaurrean jartzea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.



Usurbilgo Udala

2024/10/10

Abstentzioa: Petra Romero Pozo.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:45etan. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.